

7. Ikasgaia

Garezurreko antropometria


Antropometria batez ere antropologia fisikoan erabiltzen hasi bazen ere, arraza edo etnia arteko ezberdintasunak aztertzeko, edo bai etnia bereko banakoen artekoak ikertzeko, adibidez sexu-dimorfismoa, adina, denboran edo geografian zeharreko aldaketak, eboluzioa eta aldaketen joerak ebaluatzeko, edo fosilen ikerketarako besteak beste. Gaur erabilera zabala du antropologia forensean eta kriminologian. Bestalde, antropometriak ematen duen erreferentzia sistema oinarritzko tresna da klinikako diagnosian edo tratamenduen plangintzan aplikatzeko zenbait jakintza-arloko, Odontologian adibidez.

Ondoren garezurreko antropometriarako edo kraniometriarako erabiltzen diren puntu tradizionalen eta nagusien izen eta definizioen zerrenda bat emango da ¹. Zerrendak ez ditu literaturako guzti-guztiak jasotzen, nagusiak baino. Puntuetako batzuk erdiko planoan kokatuta daude eta hortaz bakunak dira. Berriz beste batzuk bikunak dira eta beraz bana aurki daitezke garezurraren eskuin eta ezkerrean.

Erdiko planoko puntu bakunak

1. **Alveolare.** Erdiko puntua alderdi bietako goi ebakortzen arteko hortz-hezurraren behe muturrean.
2. **Acanthion.** Aurreko sudur-eztenaren aurrerengo muturra.
3. **Apex.** Gangaren gorengo puntua erdiko planoan, eskuineko eta ezkerreko porion puntuak koroa-planoan elkarrekin lotzen direnean.
4. **Basion.** Eskualde txikia, zulo nagusiaren aurreko muturrean. Zulo nagusiaren aurre aldeko ertzaren beheengo puntua edo atzeneko puntua, biak har daitezke *basion* puntutzat.
6. **Bregma.** Gezi-jostura eta koro-jostura elkartzen diren puntua. Ezingo da umeetan zehaztu, fontikuluaren presentziagatik.
7. **Genion.** Kokotsaren atze aldeko aurpegian kokots-eztenaren muturra.
8. **Glabella.** Bekoki-hezurraren sudurreko zatian, beheko ertzaren punturik aurreratuen, bekain-arkuen eta sudur-bizkarraren bitartean.
9. **Gnathion.** Pogonion eta menton puntuen arteko erdibidea.
10. **Hormion.** Vomer eta esfenoide hezurra elkartzen diren puntua.
11. **Incision.** Eskuin eta ezkerreko erdiko goiko ebakortzen ebakitze-ertzak elkartzen diren puntua.
12. **Infradentale.** Erdiko behe ebakortzen arteko hortz-hezurraren gorengo muturra.
13. **Inion.** Kanpoko garondo-irtengunearen muturrik irtenena.
14. **Lambda.** Lambda itxurako jostura gezi-josturarekin elkartzen den puntua.
15. **Linguale.** Barailaren sinfisiaren gorengo puntua, mihi aldeko aurpegian.
16. **Menton.** Kokots-sinfisiaren beheengo puntua erdiko planoan.

¹ Jarrera Frankfurt horizontalekoa da (*Porion* eta *Orbitale* arteko alegiazko planoan).



17. **Metopion**. Erdibideko puntua nasion eta bregma puntuak erdiko planoan elkartzean. Gazteengan metopion izan daiteke bekoki-hezurraren punturik irtena, glabella izan beharrean.
18. **Nasion**. Sudur-bekokietako josturak erdiko planoan elkartzen diren puntua.
19. **Obelion**. Pareta-zuloen arteko zuzena eta gezi-jostura elkartzen diren puntua.
20. **Opisthion**. Zulo nagusiaren atze aldeko ertzaren aurrerengo puntua.
21. **Opisthocranion**. Garondo-hezurraren atzeneko puntua.
22. **Orale**. Masailezurraren sinfisiaren beheengo puntua, mihi aldeko aurpegian.
23. **Pogonion**. Kokotseko aurrerengo puntua.
24. **Prosthion**. Erdiko goi ebakortzen arteko hortz-hezurraren aurrerengo puntua.
25. **Rhinion**. Sudur-hezurren arteko josturaren beheengo puntua.
26. **Sphenoidale**. Turkiar jarlekuaren aurre aldeko muga, aurreko klinoide irtenguneen bitartean.
27. **Staphylion**. Ahosabai-hezurraren xafla horizontalen atze aldeko ertzetik igarotzen den zuzenak erdiko planoan zeharkatzen duen puntua.
28. **Subspinale**. Punturik sakonekoena aurreko sudur-eztenaren azpian (A ortodontzia-puntua)
29. **Supramentale**. Punturik sakonekoena kokots goragune gainetik (B ortodontzia-puntua)
30. **Supraorbitale**. Eskuin eta ezkerreko goiko betzulo ertzen gorengo puntuen arteko zuzenak erdiko planoan zeharkatzen duen puntua.
31. **Vertex**. Garezurraren gorengo puntua.

Bi alderdietako puntu bikunak

32. **Alare**. Sudur-zuloaren alborengo puntua.
33. **Antegonion**. Barailaren gorputzaren beheko ertzean, adarrarekin elkartzen den tokian aurkitzen den hozkaren gorengo puntua.
34. **Asterion**. Lambda itxurako jostura, pareta-mastoideetako jostura eta garondo-mastoideetako jostura elkartzen diren puntua.
35. **Auriculare**. Masailalbo-arkuaren erroa, kanpoko entzumen meatuaren gain-gainean
36. **Condylion laterale**. Barailaren kondiloaren punturik irtenena albo alderantz.
37. **Condylion mediale**. Barailaren kondiloaren punturik irtenena erdialderantz.
38. **Coronion**. Barailaren koronoide irtengunearen muturra.
39. **Dacryon**. Betzuloaren erdialdeko horman, malko-hezurraren eta masailezurraren arteko jostura bekoki-hezurrarekin elkartzen den puntua.
40. **Ectomolare**. Hortz-hezurraren masail-aldean albo alderantzko punturik irtenena, bigarren haginaren erdigunean.
41. **Endomolare**. Hortz-hezurraren mihi aldean albo alderantzko punturik irtenena, bigarren haginaren erdigunean.
42. **Entomion**. Ezkata itxurako jostura eta pareta-mastoideetako jostura elkartzen diren puntua.
43. **Frontomolare orbitale**. Bekoki-masailalboetako josturaren erdialdeko muturra betzulo aldean.
44. **Frontomolare temporale**. Bekoki-masailalboetako josturaren albo aldeko muturra.
45. **Frontotemporale**. Beheko loki-lerroaren aurreko muturra, bekoki-hezurraren masailalbo-irtengunean.
46. **Gonion**. Barailaren adarraren atze aldeko ertzetik igarotzen den zuzena eta gorputzaren behe aldeko ertzetik igarotzen dena elkartzen diren puntua.
47. **Infranasion**. Sudur-hezurraren eta masailezurraren arteko jostura bekoki hezurrarekin elkartzen den puntua.



48. **Infratemporale**. Esfenoide hezuraren loki azpiko gangarraren erdialdeko muturra.
49. **Jugale**. Atzeko masailalbo-angelua, bekoki-irtengunearen atze aldeko ertza eta loki-irtengunearen goi aldeko ertzea elkartzen diren puntua.
50. **Krotaphion**. Loki-hobian esfenoide eta pareta hezurren arteko jostura loki-hezuraren ezkatarekin elkartzen den puntua.
51. **Lacrimale**. Bekoki- eta malko-hezurren arteko jostura atzeko malko-gangarrarekin elkartzen den puntua.
52. **Lingulare**. Barailaren mihitxoaren gorengo muturra.
53. **Mastoidale**. Mastoide irtengunearen beheengo puntua.
54. **Maxillofrontale**. Bekoki hezuraren eta masailezuraren arteko jostura aurreko malko-gangarrarekin elkartzen den puntua.
55. **Mentale**. Barailaren kokots-zuloaren beheengo puntua.
56. **Orbitale**. Beheko betzulo-ertzaren beheengo puntua, gehienetan ertzaren erdigunean.
57. **Porion**. Kanpoko entzumen-meatuaren gorengo puntua.
58. **Pterion**. Esfenoide eta pareta-hezurren arteko josturako eskualdea.
59. **Sphenion**. Esfenoide eta pareta-hezuraren arteko jostura bekoki-hezurarekin elkartzen den aurre aldeko muturra.
60. **Stephanion**. Beheko loki-lerroak koroa-jostura zeharkatzen duen puntua.
61. **Temporale inferius**. Beheko loki-lerroaren gorengo puntua.
62. **Temporale superius**. Goiko loki-lerroaren gorengo puntua.
63. **Zygion**. Masailalbo-arkuaren albo alderantzko punturik irtenena.
64. **Zygomaxillare**. Masailezuraren eta masailalbo-hezuraren arteko josturaren beheengo puntua.
65. **Zygoorbitale**. Masailezuraren eta masailalbo-hezuraren arteko josturak beheko betzulo-ertza zeharkatzen duen puntua.



Bibliografia

- Buikstra J, Ubelaker D (1994) Standards for data collection from human skeletal remains. *Arkansas Archeological Survey Research Series* 44, Fayetteville, Arkansas
- Caple J, Stephan CN (2016) A standardized nomenclature for craniofacial and facial anthropometry. *Int J Legal Med* 130:863–79.
- George R (1993) Anatomical and artistic guidelines for forensic facial reconstruction. In: Işcan M, Helmer R (Ed.) *Forensic Analysis of the Skull*. Wiley-Liss, Inc., New York
- Howells W (1973) *Cranial variation in man: a study by multivariate analysis of patterns of difference among recent human populations*. Harvard University Press, Cambridge
- Howells WW (1937) The designation of the principle anthropometric landmarks on the head and skull. *Am J Phys Anthropol* 22:477–494
- Krogman W, Sassouni V (1957) *A syllabus in roentgenographic cephalometry*. Philadelphia Center for Research in Child Growth, Philadelphia
- Legrell PE, Nyquist H, Isberg A (2000) Validity of identification of gonion and antegonion in frontal cephalograms. *Angle Orthod* 70: 157–164
- Martin R (1928) *Lehrbuch der Anthropologie in systematischer Darstellung: mit besonderer Berücksichtigung der anthropologischen Methoden für Studierende, Ärzte und Forschungsreisende*. Gustav Fischer, Jena
- Martin R, Knußmann R (1988) *Anthropologie: Handbuch der vergleichenden Biologie des Menschen*. Gustav Fischer, Stuttgart
- Phulari B (2013) *An atlas on cephalometric landmarks*. Jaypee Brothers Medical Publishers, New Delhi
- Stephan C (2010) The human masseter muscle and its biological correlates: a review of published data pertinent to face prediction. *Forensic Sci Int* 20:153–159
- Stephan C, Simpson E (2008) Facial soft tissue depths in craniofacial identification (part I): an analytical review of the published adult data. *J Forensic Sci* 53:1257–1272
- White T, Black M, Folkens P (2011) *Human Osteology*. Elsevier Science, Burlington



Lan hau Creative Commons-en Nazioarteko 4.0 lizentziaren mendeko Azterketa-Ez komertzial-Partekatatu lizentziaren mende dago. Lizentzia horren kopia ikusteko, sartu https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/deed.es_ES/ helbidean.